

# **DEFINIZIOAK**

## **LURRALDE ETA HIRIGINTZA**

### **JASANGARRITASUNAREN ADIERAZLEAK - LA**

#### **(0903006)**

#### **A. EGUNGO HIRI- ETA LURRALDE-EGOERAREN ADIERAZLEAK**

---

##### **A1. LURRALDE-EREDUA: LURZORUAREN KALIFIKAZIOA**

---

EAEn hautatutako eremuan, bizitegi-erabilerarako, jarduera ekonomikoetarako, azpiegituretarako eta ekipamenduetarako kalifikatutako lurzoruaren azalera da, eremu horretan bertan dagoen lurzoru guztiarekiko.

Definizioa: Lurzoruaren kalifikazio maila (%), erabilgarri dagoen lurzoru guztiari dagokionez.

Kalkulu-formula:  $(\text{Azalera kalifikatua} / \text{azalera guztira}) \times 100$

Unitatea: %

Lurzoru kalifikatutzat hartzen dira honako hauek: hiri-lurzoru finkatuaren bizitegi-azalera + hiri-lurzoru finkatugabearen bizitegi-azalera + lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren bizitegi-azalera + lurzoru urbanizagarri sektorizatugabearen bizitegi-azalera + hiri-lurzoru finkatuaren jarduera ekonomikoetarako azalera + hiri-lurzoru finkatugabearen jarduera ekonomikoetarako azalera + lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren jarduera ekonomikoetarako azalera + lurzoru urbanizagarri sektorizatugabearen jarduera ekonomikoetarako azalera + ekipamendu-sistema orokorra + azpiegitura-sistema orokorra + bide-sistema orokorra + portu-sistema orokorra + aireportu-sistema orokorra + tren-sistema orokorra + abiadura handiko trenaren sistema orokorra.

##### **A2. BIZTANLEARIAREN DENTSITATEA**

---

Aztertutako populazioaren dentsitatea ikertzen du, kontuan hartuz kasu batean eremuko lurzoru osoa eta bestean lurzoru kalifikatua bakarrik.

###### **A2a azpiadierazlea. Populazioaren dentsitatea**

Definizioa: Biztanle-kopurua, esparruaren azaleraren km<sup>2</sup> bakoitzeko.

Kalkulu-formula: Eremuko populazioa/azalera guztira

Unitatea: Bizt./km<sup>2</sup>

### **A2b azpiadierazlea. Hiri-populazioaren dentsitatea**

Definizioa: Biztanle-kopurua, esparruan lurzoru kalifikatuak duen azaleraren km<sup>2</sup> bakoitzeko.

Kalkulu-formula: Eremuko populazioa/ azalera kalifikatua

Unitatea: Bizt./km<sup>2</sup>

## **B. GAUR EGUNGO GARAPENAREN ETA AURREIKUSITAKO GARAPENAREN INPAKTU-ADIERAZLEAK**

---

### **B1. IRI-HEREDUA**

---

Gaur egun dagoen hiri-lurzoruarekin alderatuz, lurzoruaren hirigintza-eraldaketaren zehaztasuna aztertzen du, planeamendu-tresnetan jasotakoari jarraituz. Aztertutako eremuan lurzoru urbanizagarriak hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriarekiko duen ehunekoa da.

Definizioa: Lurzoru urbanizagarriaren proportzioa (%), hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriarekiko.

Kalkulu-formula:  $(\text{Lurzoru urbanizagarriaren azalera}/(\text{hiri-lurzoruaren} + \text{lurzoru urbanizagarriaren azalera})) \times 100$

Unitatea: %

### **B2. BIZITEGI-GARAPENA**

---

Adierazten du zer-nolako etxebizitza-gehikuntza aurreikusten den, hautatutako esparruan dagoen etxebizitza-kopuruarekiko.

Definizioa: Aurreikusitako etxebizitzaren proportzioa (%), gaur egun dagoen etxebizitza-kopuruarekiko.

Kalkulu-formula:  $(\text{Aurreikusitako etxebizitza-kopurua}/\text{gaur egun dagoen etxebizitza-kopurua}) \times 100$

Unitatea: % iko.

### **B3. ETXEBIZITZA-DENTSITATEA**

---

Egungo hiri-sarea eta aurreikusitakoa hartzen ditu kontuan, bai eta egun urbanizagarria den lurzoruan aurreikusitakoa ere.

Definizioa: Etxebizitza kopurua, etxebizitza horiek kokatzen diren lurzoru-hektarea bakoitzeko.

#### **B3a azpiadierazlea.**

Kalkulu-formula: Bizitegitarako hiri-lurzoruan gaur egun dagoen etxebizitza-kopurua / bizitegitarako hiri-lurzoruen azalera

Unitatea: Etxeb./Ha.

#### **B3b azpiadierazlea.**

Kalkulu-formula: Bizitegitarako hiri-lurzoruan gaur egun dagoen etxebizitza-kopurua / bizitegitarako hiri-lurzoruen azalera

Unitatea: Etxeb./Ha.

#### **B3c azpiadierazlea.**

Kalkulu-formula: Bizitegitarako hiri-lurzoruan gaur egun dagoen etxebizitza-kopurua / bizitegitarako hiri-lurzoruen azalera

Unitatea: Etxeb./Ha.

### **C. ARTIFIZIALTZE/KALIFIKAZIO-ADIERAZLEAK**

---

#### **C1. KALIFIKAZIOAREN/ARTIFIZIALIZAZIOAREN BILAKAERA**

---

Lurzoru kalifikatu edo artifizializatuko kopuruaren bilakaera 2005 eta 2015 urteen bitartean isladatzen du.

Definizioa: Lurzoru kalifikatuaren azalera guztira, aztertutako urtearen arabera.

Kalkulu-formula: Lurzoru kalifikatua

Unitatea: Ha.